

Erref.- FMR / Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK, HONAKOA

ZIURTATZEN DU:

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko Gobernu Batzordeak, 2021eko irailaren 30eko Ohiko Bileran, 5/21 zenbakiko Akta, besteak beste, honako erabaki hau onartu zuen:

5. gaia.- Dibisioko eta/edo Departamentuko 5 burutza-lanpostu amortizatzea eta hurrenez hurren Zerbitzu Orokorretako eta Laguntza Zerbitzuetako 2 zuzendaritza-lanpostu sortzea.

"Lehenengoa.- Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen dibisioko burutzari eta Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen burutzari dagozkien lanpostuen amortizazioa xedatzea, Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuko burutzarekin batera; horien ordezkari esleitutako eginkizunak bilduko dituen Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzako lanpostu bakarra sortuko da.

Horrela sortutako Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzako lanpostua, irauten duen bitartean, Grasa Marcuello jaunaren titulartasuneko mediku-lanpostuari lotuta egongo da eta baldintza horrek izaera pertsonala du.

Bigarrena.- Pertsonak Zuzentzeko eta Zerbitzu Orokorren Departamentuko burutzei dagozkien lanpostuen amortizazioa xedatzea; horien ordezkari Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako lanpostu bakarra sortuko da, haiei esleitutako eginkizunak bilduko dituen.

Hirugarrena.- Orain sortzen diren lanpostuen funtzioak, eskumenak eta erantzukizunak amortizatutako lanpostuei dagozkienak dira -metatuta-, hargatik eragotzi gabe hurrenez hurren Erakundearen Egitura Organikoaren Erregelamenduak eta LPZk aurki ezarriko dituen eran eta hedakuntzan garatuko den horien zehaztapen ditua.

Laugarrena.- Kasu kasuko titularrak zuzendaritzako lanpostu berrietara atxikitzea, hau da, Eneko Gutiérrez Coterón jauna Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza postura eta Luis Antonio Grasa Marcuello jauna Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritza postura; lan-kontratuak berriro egingo dira, kasu batean zein bestean, aurrekarietan jasotako berezitasunak kontuan hartuta.

Bosgarrena.- Erabaki honek hartzen den egunean izango ditu ondorioak; dena dela, geroago derrigorrezkoa da argitaratzea, erantsitako dokumentuan adierazitako moduan eta irismenarekin. Lanpostu berrietan jarduteko ezaugarriak, betekizunak eta baldintzak horrela ezarritakoak izango dira.

Seigarrena.- Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 24ko 2/2021 Foru Arauaren 12. artikuluan, I. kapituluko gastuen gehikuntza mugatzeari buruzkoan, jasotako aurreikuspenaren arabera, hemen definitutako plazak eta lanpostuak amortizatzeak eta aldi berean sortzeak ez dakar I. kapituluko gastuen gehikuntza, horien eragina neutroa delako.



Zazpigarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta arrazoitzeko balio duen aurreko txostena ere helaraztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan aurreikusitakoa betez; halaber, ohartarazi egingo zaie erabaki honen aurka lan-arloko jurisdikzio-bidean demanda jarri ahal izango dutela, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

Zortzigarrena.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-oholean eta GUFEn intranetean eta webgunean argitaratzeko agintzea.

Eta horrela jasota gera dadin, erabakitakoa betez eta bidezko akta onestetik ondorioztatzen diren baldintzen menpe, agiri hau egiten dut Bilbon, bi mila eta hogeita bateko irailaren hogeita hamarrean.

GUFEKO GOBERNU BATZORDEKO
IDAZKARIA

Sin.: David Latxaga Ugartemendia